

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

1605

38/2015 DEKRETUA, martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzeko dena.

Abenduaren 23ko 316/2003 Dekretuak arautzen du Gaztemundu programa. Dekretu hori onartu zenetik oso tresna baliagarria izan da Euskadik, euskal gizarteak eta haren erakundeek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo diren euskal gizatalde eta etxeekin dituzten harremanak sustatu, babestu eta areagotzeko.

Abiarazi zenetik hona hamarkada bat igaro denez, ikusi da beharrezkoa dela dekretu horretan jasotako zenbait alor eguneratzea. Hain zuzen, parte-hartzaileek adin tarte batekoak izateko bete-beharra jaso da, programaren helburuak bat etor daitezen hartzaileen adinarekin. Aldaketa honen bitartez, baita ere, eskabideak baloratzeko zenbait irizpide objektibo erantsi zaizkio dekretuari, izan ere, ebazpen bidez onartzen ziren irizpide horiek aurreko deialdietan. Ildo horretan, balorazio irizpide bakoitzeko gehieneko puntuazioa eta dagokion haztapena ezarri dira diru-laguntzak ebazteko. Halaber, programaren aukeratze prozesuan sartzeko gutxieneko puntuazioa ezarri da.

Bestalde, aldaketa honen bitartez egokitu egingo da dekretu hori Lehendakaritzaren egitura organiko eta egiteko berrietara –apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuan ezarri ziren egitura eta egiteko horiek–. Egitura eta egiteko horien arabera, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren titularrari dagokio Gaztemundu programaren deialdia egitea; eta Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren titularrari, diru-laguntza horiek ebaztea. Aldaketa honen arabera, ebazpen horrek ez du administrazio bidea amaitzen eta bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian. Ebaluazio Batzordeko kideak ere aldatuko dira, beraz, gora jotzeko errekurtsioak ebatzi behar izanez gero, horiek ebatzi behar dituen batzordetik kentzeko, objektibotasun eta inpartzialtasun handiagoa bermatze aldera.

Horregatik guztiarengatik, beharrezkoa da 316/2003 Dekretuaren aldaketa sustatzea (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena).

Ondorioz, Lehendakaritzak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015eko martxoaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 4. artikulua 1. paragrafoaren a) idatzi-zatia (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du idatzi-zati horrek:

«a) 18 eta 35 urte bitartean izatea deialdia egiten den urteko urtarilaren 1ean.»

Bigarren artikulua.– Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 6. artikulua 1. paragrafoaren a), b), c) eta d) idatzi-zatiak (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango dute idatzi-zati horiek:

«a) Ikerketa eta azterlanaren balorazioa. Gehienez ere, 40 punturekin baloratuko dira deialdiaren xederako aurkeztu den lanaren kalitatea eta, espezifikoki, dena delako gaiaren egungo egoera hobetzeko proposamenak.

b) Eskatzaileak zenbateraino parte hartzen duen erakundean. Gehienez ere, 40 punturekin baloratuko da bazkideak erakundean duen antzinasuna, baita erakunde horien gobernu batzordeetan ardurarik izatea unean edo lehenago.

c) Euskara jakitea. Gehienez ere, 10 punturekin baloratuko da hizkuntza jakitea egiaztatzea. Eusko Jaurlaritzak homologatutako zentroen ziurtagiriak edo bestelako dokumentuak aurkeztu beharko dira euskara menperatzen dela edo ikasten emandako urteak egiaztatzeko.

d) Euskal Herrian inoiz egon gabekoa izatea. 10 puntu emango zaizkie hori egiaztatzen dutenei eskatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko aitopenen bitartez.»

Gutxienez, 50 puntu lortu beharko dituzte eskatzaileek, aukeratze prozeduran onartuak izateko.

Hirugarren artikulua.— Indarrrik gabe uzten da 316/2016 Dekretuaren 6. artikulua 2. paragrafoa (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena).

Laugarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 7. artikulua (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du artikulua horrek:

«Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia arduratuko da, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren bitartez, programa honen kudeaketa lanak egiteaz.»

Bosgarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 8. artikulua 1. paragrafoa (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«1.— Urtero, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak emango duen ebazpenaren bitartez, deialdia egingo da, dekretu honek arautzen duen Gaztemundu programan parte hartzeko plazak eskaintzeko, zenbat plaza diren zehaztuta. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Ebazpen horretan beti jasoko dira deialdiaren xedea, programan parte hartzeko gutxienerako adina, eskaintzen diren egonaldien kopurua, ekitaldiko aurrekontuan programarako jarri den horniduraren zenbatekoa, eskabideak baloratzeko irizpideen azalpen zehatza eta haztapena, eskatzen den gutxienerako puntuazioa, programa gauzatzeko aldia, eskabideak aurkezteko lekua eta epea eta eskabideen eredu normalizatua. Halaber, dekretu honen 11. artikuluan aipatutako Ebaluazio Batzordeko kideak izendatuko dira.»

Seigarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 11. artikulua 1. paragrafoa (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«1.— Deialdi bakoitzean aurkeztu diren eskabideak aztertzeko, Ebaluazio Batzordea eratuko da. Hauek izango dira batzorde horretako kideak:

- Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria, batzordeburua.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari atxikitako bi pertsona, bokalak.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari atxikitako pertsona bat, idazkaria; ahotsa izango du, baina ez, botorik.

Ebaluazio Batzordeak 6. artikuluan ezarri diren ebaluazio irizpideak erabiliko ditu eta 5. artikuluan ezarritako hautaketa prozedura beteko du. Azkenik, organo eskudunari ebazpen-proposamena egingo dio Gaztemundu programan parte hartu behar dutenak hautatzeko.»

Zazpigarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 12. artikuluen 1. paragrafoa (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«1.— Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariak, Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusirik, Gaztemundu programako parte-hartzaileak aukeratzeko prozedura ebatziko du. Programan parte hartzeko aukeratutako eskatzaileen zerrenda jasoko da ebazpenean.»

Zortzigarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren 12. artikuluen 3. paragrafoa (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«3.— Gaztemundu programako parte-hartzaileak aukeratzeko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da sei hilabeteko epean, urteko deialdia egiteko ebazpena aldizkari horretan argitaratutako egunaren biharamunean kontatzen hasita. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren titularrari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunean hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Halaber, aukeratze prozesuaren emaitzei buruzko jakinarazpen bana bidaliko zaie prozesuan parte hartu dutenei, informatzeko helburu soilarekin.»

Bederatzigarren artikulua.— Aldatzen da 316/2016 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena (316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena). Honelako idazketa izango du azken xedapen horrek:

«Bigarrena.— Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko martxoaren 31n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.